

ta zillarrezko itsasoan murgill, zeru amestuan. Gizadi osoa dago gaxorik. Artzuloaren barruan dabill. Sem e asko ta asko daramazki erromesean. Artegi bakarrera bildu balazarren, bai, edanen lukete ur geza-tik.

Ba-dakigu nolakoa den Marcel'-en deia: *alkar - laguntza*. Gatzazkion deiari biotz-ukibera, Gaitezen fededun.

Eskutan erabilli ditudan liburuak:

«La filosofía de hoy». (Sciacca)

«Filosofía contemporánea». (Coppleston)

«El existencialismo en su aspecto ético». (Alcorta)

«Literatura del siglo xx y cristianismo». (Moeller)

«Estafeta Literaria».

Orixe'ri erantzuna

Jaun agurgarria: lotsatuta be gelditu naz emon daustan erantzunagaz. Zer esango dabe ezagutzen nabenak? Orixe Kamiñazpi'ri «bedori»-ka!

Bai, ba, «Ekin»-go idazlea nintzala esan neban eta zarren bat izango nintzala pentsau eban berorrek. Ez, enaz gaztea baiña berorren ondoan bai. Ez dakit zenbat baiña mende laurden bat bai arrikkure. Beraz elizgizon edo osagille be enaz eta ez dagokit berorren «bedori»-rik.

Eta alkarregaz urteetan baiña beste alderik ez begeunke! Baiña ba-daukagu bai, ta ez gitxi be. Eskola bakua naz ni. Amabi urte osta-osta neukazala lanean asi nintzan. Eta ordurako makinabat besigutarako tretsa aita zanari enkamau neutsazen.

Gerora ez dot ezetariko ikasketarik egin. Esku-langilleen lana bai sendo!

Onenbesteagaz asi nadin berorrei erantzuten.

1.—Egia da «Ekin»-era neure erriko barriak'eta bialtzen nebazana (orduan, eta oraintsu beste bat izen onegaz ikusi arte, «Iturrondo» izenpetzen neban) baiña bertako idazleetan Manterola ta IbagutxL bakarrik daukadaz gogoan. Eta berorrek a artikuluagaz egin ebala diñon idazlan aren barri sekula ez dot euki.

2.—«Ni neu», «zu zeu» ta olakoak asko esaten dira Ondarru'n eta bere errazoi-txoaz izango dabela-ta nago.

3.—«Bekidaz» dala-ta diñostana egi andia da. Neuk be sekula erabilli ez dodan itz au erabiltzeko komtu apur bat artu bear neban. Dana dala, eskarrik asko.

4.—Au, iñoren eztabaidetan sartzia da baiña. Txillardegí'ri Pera Leartza'koan darabilen euskeraren akatsak agertzean bat auxe aitatzen dau: «la orde-na, a. b.: ba-dakit ala dana. Gv-e aldean ez det beñere entzun eta belarrian min aundia ematen dit». Bear bada Gipuzko'an ez da —na ori erabilliko, baiña Bizkaia'n bai. Bizkaia'n ederto dakigu —la ta —na'ren zeregiña bereizten, eta ori euskera ona da. Artikuhi onetan bietara ikusi leike.

5.—Azkenez arlo barri bat. Azken-aurreko «Jakin'en geigarrian» artikulutzazko berorreu idazlana ikusi-ta neidi: be gai beratzaz zeozertxu idatzi neban, baiña beti bialtzeko, berandutu egin iatan. Eta orain ez-baian gelditu naz. Ia Orixe jaunak astiñaldi ederren be emoten daustan! Baiña besterik ez bada be Ondarru'ko artikululegeak norbaiteri atsegin izan leitekiozalata, or doa ezer aldatu barik.

Besterik ez, Orixe jauna, Parkatu ta agindu.

Kamiñazpi